

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua ematen duen babesa aintzakotzat hartu eta Ibilgailuen Azterketa Teknikoari buruzko MOZIO ARRUNT hau aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako automobil-zaleek Urnietara edo Iruna joan behar izaten dute Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (IAT) pasatzera. Automobil-zaleentzat deserosoa da udalerritik atera behar izatea azterketa hori egitera, baina ez dakar arriskurik gidarientzat. Moto-zaleentzat ez da horrela, ordea; izan ere, zilindrada txikikoak dira Donostiako moto gehienak, eta Urnietaraino joan behar izaten dute gidariak, arrisku batzuk pasatuz, zenbaitetan, eta oraindik eta gehiago Donostiako motozikleta-zale asko hirian ibiltzen ohituta daudelako baina ez errepide nagusian edota saihesbidean.

Donostian ezin bada ere, Donostiaren tamainako beste hiri batzuetan, IATa bizi diren udalerraren eremu geografikoan bertan egiteko modua daukate moto-zaleek.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

MOZIO ARRUNTA

1. Donostiako Udalaren Osoko Bilkurak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio jartzeko bidea Donostiako hiri-eremuan establezimendu iraunkor bat sortzeko, Donostiako motozikletazaleek ibilgailuen IATa hiri-eremuan egin ahal izateko.

Donostia, 2025eko apirilaren 2a

Borja Corominas Fisas,
Alderdi Popularraren Udal Taldearen bozeramailea